

**BILBAO EKINTZA EPEL-REN ETA ELHUYAR FUNDAZIOAREN ARTEKO
LANKIDETZA-HITZARMENA, “ELHUYAR ZIENTZIA AZOKA 2023” IZENEKO
EKITALDIA ANTOLATZEKO ESPARRUAN**

Erref. 230503/Col.

Bilbon, 2023ko maiatzaren 4an.

AGERTU DIRA

Alde batetik, F. JAVIER GARCINUÑO ZABALA jauna, BILBAO EKINTZA EPELeke zuzendari nagusia den aldetik (IFZ: Q-4800731-D eta helbidea: Nafarroa 5, 48001 Bilbo), behar den moduan izendatua, entitatearen Administrazio Kontseiluak 2019ko abuztuaren 21ean egindako izendapenarekin bat etorriz eta Bilbao Ekintza EPELren Estatutuen 16. eta 17. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz (Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko 2011ko uztailaren 5eko 127. zenbakia).

Beste alde batetik, JON ABRIL OLATEXEA jauna, adinez nagusia, ELHUYAR FUNDAZIOAren izenean eta ordezkaritzan (IFZ: G20780896 eta helbidea: Zelai Haundi 3–20170 Usurbil).

AZALDU DUTE

I.- BILBAO EKINTZA EPEL erakundea (aurrerantzean BILBAO EKINTZA) Bilborako ekonomia- eta gizarte-aberastasuna sortzea sustatzen duen udal-erakundea da; horretarako, hiria bultzatzen du inbertitzeko leku erakargarri gisa eta enpresak sortzen eta hazten laguntzen du, laneratzeko aukerak hobetzen dituela.

II.- ELHUYAR FUNDAZIOAk (aurrerantzean “ENTITATE ONURADUNA”) ELHUYAR ZIENTZIA AZOKA 2023 izeneko ekintza aurkeztu dio BILBAO EKINTZAri. 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dagoen jarduera bat da, eta, hain zuzen ere, ikasturtean zehar proiektu zientifiko edo teknologiko bat garatuko dute, zeinari amaiera emango zaion 2023ko ekainaren 2an, 3an eta 4an antolatuko den azokan.

Gazteek Bilboko Areatzako kaian aurkeztuko dituzte proiektuak, eta proiektu irabazleen sari-banaketa ekainaren 4an, igandea, egingo da.

Euskal Autonomia Erkidegoko DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako erdi-mailako zikloetako ikasleei dago zuzenduta, eta bi eta lau pertsona arteko taldeetan hartuko dute parte. Ikasturtean zehar, lantaldeek, hain zuzen ere, irakasleek eurek erabakitzen duten erronka batean egingo dute lan.

Proiektuak garatzeko, euskal unibertsitate guztietako berrehun ikertzaile baino gehiagoren laguntza izango dute talde parte-hartzaileek, bai eta ikerketa-zentroen laguntza ere. Bizitako esperientziak eta abenturak partekatuko dituzte. Ikertzaileek proiektuak bideratzen lagunduko diete lantaldeei.

III.- Pertsona ugari hurbiltzen dira azokara, eta, horrela, zientzia, teknologia eta berrikuntzaren kultura herritar guztiei helarazten zaie aisialdirako uneetan, talde gazteen eskutik eta zientziaren eta teknologiaren euskal sarearen laguntzarekin, bai eta tokiko, probintziako eta erkidegoko administrazioen babesarekin ere.

Gazteen hogeita bost erakusmahai egongo dira, non proiektu zientifikoak eta teknologikoak jarriko dituzten ikusgai. Horiez gain, beste erakusmahai bat gehiago jarriko da, informazio-puntu bat, alegia. Hain zuzen ere, bertan banatuko dira sariak ekainaren 4an, igandean.

Ekitaldia 10:00etan hasi eta 14:30ean amaituko da, azken egunean izan ezik; izan ere, sariak banatuko direnez, 15:00ak arte luzatuko da ordutegia.

IV.- Jasotako gogoetak oinarri hartuta, Bilboko Udalaren Udalbatzak 2022ko abenduaren 28an egindako saioan erabaki zuen 2023. urteko aurrekontuetan BILBAO EKINTZA EPEL entitate publikoaren dirulaguntza izendun bat onestea ELHUYAR FUNDAZIOAren alde. Dirulaguntzaren zenbatekoa HOGEI MILA EUROkoa da (20.000,00 €).

Hori guztia dela eta, orain arte azaldu denaren ondorioz sortutako eskubideen eta betebeharren esparrua arautzeko asmoz, bi aldeek eskumen eta gaitasun juridiko nahikoa

aitortu diote elkarri esku hartuko duten kontzeptuan, eta hitzarmen hau sinatu dute, zeina honako klausula hauekin bat etorritz arautuko den:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Xedea

Dirulaguntzaren xedea da “ELHUYAR ZIENTZIA AZOKA 2023” izeneko ekitaldia Bilbon antolatu ahal izatea. Hain zuzen ere, 2023ko ekainaren, 2an, 3an eta 4an antolatuko da Bilbon.

BIGARRENA.- Lankidetzaren garatzea

ENTITATE ONURADUNAK konpromisoa hartzen du ekintza jarduketaren proposamenaren arabera antolatzeko, bai eta aurkeztutako dokumentazioaren arabera ere. Era berean, BILBAO EKINTZAK eskatzen dizkion ekitaldietan parte hartzeko konpromisoa hartzen du, sustapen-ekitaldiak, ekitaldi sozialak edo komunikabideetakoak izan.

Beste alde batetik, BILBAO EKINTZAK HOGEI MILA EUROKO (20.000,00 €) zenbateko globala emango dio ENTITATE ONURADUNARI, ekitaldia antolatzeko dirulaguntza gisa.

HIRUGARRENA.- Indarraldia

Lankidetzaren hitzarmen hau sinatzen den unetik aurrera eta diruz lagunduko den ekintzak gauzatu arte egongo da indarrean. Dena den, hitzarmena iraungitzen den egunetik aurrera ere derrigorrez bete beharko dira hitzarmena amaitzen denean ere derrigorrez bete beharreko klausulak.

LAUGARRENA.- Ordainketak egiteko modua

BILBAO EKINTZAK, egindako akordioekin bat etorritz, konpromisoa hartzen du ENTITATE ONURADUNARI hitzarmen honetako bigarren klausulan jasotako zenbatekoa emateko honako epe eta baldintza hauetan:

- HAMASEI MILA EUROKO zenbatekoa (16.000,00 €) gehienez ere hilabeteko epean ordainduko da, hitzarmen hau sinatzen den unetik aurrera zenbatzen hasita.

- LAU MILA EUROKO zenbatekoa (4.000,00 €) ekitaldia amaitzen denean ordainduko da, honako dokumentazio hau aurkeztu ondoren:

- Jarduketa-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita (dokumentazio grafikoa ere aurkeztu beharko da, jarduerak bisualki ikusi ahal izateko).
- Hitzarmen honetan jaso diren eta diruz lagundu daitezkeen kostuak justifikatzeko memoria ekonomikoa. Honako hau jasoko da bertan:
 - Egin diren jardueren diru-sarreraren zerrenda.
 - Egin diren jardueretan izandako gastuak, hartzekoduna identifikatuta.
 - Eskatu diren aurrekontuak (3), dirulaguntzari egozten zaion gastuetakoren bat Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak kontratu txikietarako ezarritako muga (15.000 euro) baino handiagoa izatekotan.
 - Jatorrizko fakturak edo kopia erkatuak, dirulaguntzaren zenbatekoari egotzitako fakturak direnean, eta ordainketa egiaztatzen duen dokumentazioa ere aurkeztu beharko da. Faktura horiek ezin izango dira aurkeztu beste erakunde batzuetan dirulaguntzak justifikatzeko, egotzi gabeko ehuneko izan ezik.

ENTITATE ONURADUNAK, dena den, emandako dirulaguntza osoa aipatutako unean baino lehenago ordaintzeko eskatu dezake. Horretarako, idatziz aurkeztu beharko du eskaera. BILBAO EKINTZAK, ikusten dituen premien arabera, aitortutako dirulaguntza ordaintzea onartuko du. Hori guztia kontuan hartuta goian zerrendatu den dokumentazio guztia aurkeztu behar dela.

Justifikatutako zenbateko osoa emandako eta hitzarmen honetako bigarren apartatuan jasotako zenbateko osora iristen ez bada, BILBAO EKINTZAren azken ekarpena murriztuko da zenbateko horien arabera, eta izan daiteke ENTITATE ONURADUNAK justifikatu gabe geratzen den eta aldeaz aurretik jaso duen zenbateko ekonomikoa itzuli behar izatea.

ENTITATE ONURADUNAK bermatu egingo du ez dela gainfinantzaketarik egongo hitzarmen honetan jaso diren eta diruz lagundu daitezkeen kostuei dagokienez. Horrelakorik gertatuz gero, ENTITATE ONURADUNAK BILBAO EKINTZAri itzuli beharko dio alde hori

gainditzen duen ehunekoa.

BOSGARRENA.- Erantzukizunen erregimena

BILBAO EKINTZA, inolaz ere, ez da ekintzak gauzatzerakoan sortu daitezkeen kalteen erantzulea izango.

ENTITATE ONURADUNAK bere gain hartuko du hitzarmenari dagozkion jardueretatik sortzen diren kalteen erantzukizuna, eta erantzukizun zibileko aseguruak kontratatu beharko ditu, eska dakizkiokeen beste batzuk gorabehera. Gainera, entitateak berak hartuko du horiek ordaintzeko ardura.

SEIGARRENA.- Publizitatea

ENTITATE ONURADUNAK konpromisoa hartzen du laguntzaile gisa BILBAO EKINTZAK ematen dizkion logotipoak lehentasunezko leku batean jartzeko jarduketan publizitatean, bai eta zabaltzeko materialetan eta seinaleetan ere, besteak beste.

BILBAO EKINTZAK ENTITATE ONURADUNAK aurkeztutako memorian jasotako dokumentazioa erabili ahal izango du (edozein euskarritan ematen dituzten irudiak barne hartuta) sustapen-produktuak prestatzeko eta interesgarri jotzen dituen komunikabideetan eta bitartekoetan zabaltzeko (memoriak, ikus-entzunezko proiektzioak, bestek beste, Bilboko Turismo Bulegoan).

Horri dagokionez, ENTITATE ONURADUNAK BILBAO EKINTZAri helburu horrekin aurkezten dizkion euskarri eta dokumentuetan agertzen diren pertsonen baimen egokiak eduki beharko ditu, eta bera arduratuko da beste batzuek BILBAO EKINTZAren aurka egiten duten erreklamazioez edo erreklamazio-mehatxuez defendatzeaz, baldin eta erreklamazio horren arabera hornitutako edukietan datu pertsonalen babesa urratzen bada, bai eta, kasuan kasu, hirugarrenen jabetza intelektual edo industrial urratzen bada ere.

ENTITATE ONURADUNAK BILBO EKINTZA salbuetsiko du aurreko bermeak ez betetzeagatik sor daitezkeen erreklamazio, kalte edo karguetatik.

Era berean, BILBAO EKINTZAK esperientzia, baliabideak eta dokumentazioa aurkezteko konpromisoa hartzen du, ENTITATE ONURADUNAREKIN indarrak batu eta elkarrekin lan egiteko, betiere, hiribilduaren promozio integrala askotariko adierazpenetan egiteko eta Bilboren etorkizuneko proiektzioa bermatzeko.

ZAZPIGARRENA.- ONURADUNAREN betebeharrak

ENTITATE ONURADUNAK Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikuluan jasotako betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen du, eta ezagutu eta onartzen dituela adierazten du. Era berean, irudi profesional onari eusteko eta BILBAO EKINTZAren irudiari kalte egiten dion edozein jokabide edo jarrera saihesteko konpromisoa hartzen du. Bestalde, azken horrek hala eskatzen duenean garatuko diren jardueren eta egingo diren sustapen-ekintzen inguruko informazioa emango du, bai eta horren oihartzunaren inguruko informazioa ere.

ENTITATE ONURADUNAK lankidetzat hitzarmen honetan bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, BILBAO EKINTZAK hitzarmena suntsiarazteko eskumena izango du, eta, gainera, ordaindutako zenbatekoak itzultzeko eskatu ahal izango du.

ZORTZIGARRENA.- Arau-haustek eta zehapenak

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen 52. artikuluetan eta hurrengoetan jasotako arau-haustek eta zehazpenak, halaber, lankidetzat hitzarmen honetan jasotako harremanean aplikatuko dira.

BEDERATZIGARRENA.- Araudia

Lankidetzat hitzarmen honetan jaso ez diren alderdien kasuan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedatutakoa beteko da, bai eta garapen-araudian xedatutakoa ere.

HAMARGARRENA.- Jurisdikzio eskuduna

Aldeek beren-beregi uko egiten diete egokitu dakiekeen beste edozein foruri, eta hitzarmen

honen ondorioz sortu daitezkeen eztabaida guztiak Bilboko Auzitegi eta Epaitegien esku utziko dituzte.

Hala jasota geratu dadin, berretsi eta hitzarmenaren bi ale sinatu dituzte, ondorio bakarrarekin, hasieran jaso diren hirian eta egunean.

BILBAO EKINTZA EPEL

ELHUYAR FUNDAZIOA

Sin. F. Javier Garcinuño Zabala

Sin. Jon Abril Olaetxea